

III. ERANSKINA: IRUDI, BIDEO ETA IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN GAINEKO ESKUBIDEAK LAGATZEKO BAIMENA, EDUKI HORIEK LEHIAKETA DELA ETA BERARIAZ TALDE IRABAZLEENTZAT EGINDAKO WEBGUNEAN ARGITARATZEKO.

DAGOKION INFORMAZIOA EMANDA, BAIMEN HONEK BEREKIN DAKAR IRUDI, BIDEO EDO IKUS-ENTZUNEZKO BESTE EDOZEIN EDUKIREN GAINEKO ESKUBIDEAK LAGATZEA, TALDE IRABAZLEETAKO KIDEEI ESKATZEN ZAIENA, eduki horiek lehiaketaren webgune ofizialean (<https://consumopolis.consumo.gob.es>) eta autonomia-erkidegoko webgune ofizialetan argitaratzeko. Era berean, Gizarte Eskubideetako, Kontsumoko eta 2030 Agendako Ministerioko Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak eta autonomia-erkidegoetan kontsumoaren arloan eskumena duten erakundeek, Lehiaketa sustatzeko, bideo eta/edo irudi horiek argitaratu ahal izango dituzte Gizarte Eskubideetako, Kontsumoko eta 2030 Agendako Ministerioko Kontsumo Zuzendaritza Nagusiaren eta autonomia-erkidegoetan kontsumoaren arloan eskumena duten erakundeen eskura dauden bitarteko eta euskarri guztietan. Lagapen honen lurralde-eremua nazioartekoa da, tratamenduaren arduraduna Interneten dagoelako.

Ondorioz, Gizarte Eskubideetako, Kontsumoko eta 2030 Agendako Ministerioko Kontsumo Zuzendaritza Nagusiari eta autonomia-erkidegoetan kontsumoaren arloan eskumena duten erakundeei baimena ematen zaie, esanbidez, 14 urtetik beherako ordezkatuaren izen-abizenak, irudi pertsonala eta/edo ahotsa, edota 14 urtetik gorakoaren izen-abizenak, irudi pertsonala eta/edo ahotsa erreproduzitu, banatu eta jendaurrean zabaltzeko, Lehiaketan parte hartzeko helburuarekin eta informazio zein sustapenaren ondorioetarako. Era berean, Lehiaketarekin loturiko eta parte-hartzaileei eskatutako irudi-eskubideak eta irudi, bideo eta ikus-entzunezko beste edozein eduki erreproduzitzeko eskubideak lagatzen dira, doan, kazetaritza- edo publizitate-komunikabideetan erabili ahal izateko, Lehiaketaren berri emateko eta horri buruzko informazioa hedatzeko. Irudi- eta/edo ahots-eskubideen lagapen hau lurralde- eta geografia-mugarik gabe ematen da, datuak jaso diren informazio- eta sustapen-helburua betetzeko behar-beharrezkoa den eperako, betiere, kontserbazio-epea mugatzeko printzipioaz gain, tratamenduaren helburu- eta legezkotasun-printzipioak errespetatuz. Eta aurreko guztia BAIMENTZEN dela adierazteko, agiri hau sinatu da _____(e)n, 202__ (e)ko _____aren _____(e)(a)n.

Izpta.*:

NAN zk.:

Izpta.:

NAN zk.:

(*) 14 urtetik beherakoak ordezkari bat baino ez badu edo sinatzailea 14 urtetik gorakoa bada, sinadura bat baino ez da behar.

II. ERANSKINA: CONSUMÓPOLISEN PARTE HARTZEKO ETA DATU PERTSONALAK TRATATZEKO BAIMENA

Consumópolis Gizarte Eskubideetako, Kontsumoko eta 2030 Agendako Ministerioaren mendeko Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak Interneten duen plataforma birtual batean garatzen den lehiaketa bat da. Lehiaketa Lehen Hezkuntzako azken zikloko ikasleei zuzenduta dago, baita Bigarren Hezkuntzako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleei ere, irakaslearen gainbegiradapean. Irakasle batek bost ikasleko talde baten lana koordinatuko du.

BAIMENA

_____, jaunak/andreak, _____ NANarekin eta _____ jaunak/andreak _____ NANarekin, 14 urtetik beherakoaren aita/ama/tutore gisa eta/edo legezko ordezkari gisa, adierazten du(te) baimen honetan jasotako informazioa egiazkoa eta zuzena dela alderdi guztietan, eta esanbidez BAIMENA ematen dio(te) _____(e)ko _____aren _____(e)(a)n jaiotako _____ haurrari, Gizarte Eskubideetako, Kontsumoko eta 2030 Agendako Ministerioaren mendeko Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak kontsumo arduratsuari buruz antolatzen duen lehiaketan izena emateko eta parte hartzeko. Halaber, baimen honen bidez, lehiaketa honen oinarriak onartzen ditut/ditu/dituzte, eta bertan adierazitakoarekin ados nagoela/dagoela/daudela adierazten dut/du/dute.

Nik, _____, _____ NANarekin, 14 urtetik gorako ikaslea naizenez, ONARTZEN DUT Gizarte Eskubideetako, Kontsumoko eta 2030 Agendako Ministerioaren mendeko Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak antolatzen duen Kontsumo Arduratsuari buruzko Consumópolis lehiaketan izena ematea eta parte hartzea. Halaber, eta baimen honen bidez, lehiaketa honen oinarriak onartzen ditut eta bertan azaldutakoarekin ados nagoela adierazten dut.

DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO INFORMAZIO-KLAUSULA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO edo datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (DPBEDBLO) ezarritakoaren arabera, honako alderdi hauen berri ematen dizugu:

- 14 urtetik gorako sinatzailearen edo, hala badagokio, 14 urtetik beherako ordezkatuaren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Gizarte Eskubideetako, Kontsumoko eta 2030 Agendako Ministerioaren mendeko Kontsumo Zuzendaritza Nagusia izango da (helbidea: Paseo del Prado 18-20, 28014 Madril), lehiaketa estatuan eta nazioartean sustatzeko helburuarekin.

Tratamendua legitimatzen duen oinarri juridikoa DBEOren 6.1.e) artikulua da: interesdunak baimena emango du bere datu pertsonalak tratatzeko, helburu zehatz baterako edo batzuetarako.

- 14 urtetik gorako sinatzailearen edo, hala badagokio, 14 urtetik beherako ordezkatuaren identifikazio-datuak Lehiaketak irauten duen bitartean tratatuko dira.

Hala ere, lehiaketaren gardentasuna bermatzeko eta lehiaketa sustatzeko, irabazleen datuak Lehiaketaren webgunean argitaratuko dira, bost urtez, edota parte-hartzaileak bere datuak ezabatzeko eskatu arte.

Kasu batzuetan, datu horiek Europako programetan parte hartzeko erabili ahal izango dira.

- Ordezkariek, ordezkatuak (14 urte baino gehiago bete ondoren) eta 14 urtetik gorakoek, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko/ezabatzeko, aurka egiteko, mugatzeko

eskubideak eta eramangarritasunaren gaineko eskubidea baliatu ahal izango dituzte. Horretarako, posta bidez gutuna bidal dezakete goian adierazitako helbidera, hots, Gizarte Eskubideetako, Kontsumoko eta 2030 Agendako Ministerioaren mendeko Kontsumo Zuzendaritza Nagusiaren helbidera, NANaren edo dokumentu baliokide baten kopiarekin batera, eta bere burua baimen honen sinatzaile gisa identifikatuta, edota egoitza elektronikoan eskuragarri duten inprimakia erabil dezakete (<https://consumo.sede.gob.es/procedimientos/portada/ida/3743/idp/1306>).

- Halaber, datu pertsonalak babesteko eskubidea urratu egin zaiela uste badute, erreklamazio bat jarri ahal izango dute Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean (www.aepd.es).
- Gizarte Eskubideetako, Kontsumoko eta 2030 Agendako Ministerioari (sailari atxikitako erakunde publikoak kenduta) dagokion Datuak Babesteko Ordezkaria (DBO): dpd@dsca.gob.es

Agiri hau sinatuta, sinatzaileak/sinatzaileek:

Adierazten du(te) esanbidez informatu dutela/dituztela agiri honetan zerrendatutako puntu guztiei buruz. Halaber, datu pertsonalak tratatzeko baimena edozein unetan ken dezakeela/dezaketela jakinarazi diote/diete.

Baimen ageria, askea eta berariazkoa ematen du(te) Consumópolisen parte hartzeko eta datu pertsonalak tratatzeko Baimenaren agirian agertzen diren datu pertsonalak, ordezkatuari edo bere buruari buruzkoak, Gizarte Eskubideetako, Kontsumoko eta 2030 Agendako Ministerioaren titulartasuneko fitxategi batean sartzeko eta agiri honetan ezarritako helburuarekin tratatzeko.

Izpta.*: NAN zk.:

Izpta.:NAN zk.:

(*) 14 urtetik beherakoak ordezkari bat baino ez badu edo sinatzailea 14 urtetik gorakoa bada, sinadura bat baino ez da beharko.